

DBH 3 HAUTAZKOAK 2026/2027

ALEMAN TAILERRA I

Hainbat hizkuntzatan hitz egiteko gaitasuna izateak, baita alemanez ere, gero eta garrantzi handiagoa du gaur egungo gizartean. Jabekuntza honi esker, ikasleek aukera dute bizitza, gizarte antolaketak eta pentsaera mota ezberdinak ezagutzeko eta euren enpatia eta tolerantzia sozio kulturala garatzeko.

Hizkuntzen Ikaskuntzarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarritzen da. Ikasleek euren hizkuntz gaitasuna gradualki garatzen dute alemana gelan erabiliz.

Metodologia eraikitzailea erabiltzen da, besteak beste proiektuen bitartez, komunikazioa helburu nagusia delarik. Bestalde, testu liburuek, materialek eta edukiek, ikasleen interesei, esperientziei eta nahiei egokitutako ekintzak eskaintzen dituzte.

ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA: FRANTSESA 3

Ikasgai honen helburua idatziz zein ahoz, jariatasunez eta zuzentasunez, frantsesa hizkuntza menperatzea da. Hizkuntza guztietan bezala bai gramatika, bai entzumenak, bai ahozko ariketak eta idazlanak egingo dira, baina ahozko komunikazioari emango zaio lehentasuna. Klaseetan pelikuak eta bideoak ere ikusiko dira, abestiak landuko dira, jarduera ludikoak egin; ikasleek proiektu ezberdinak egingo dituzte eta, adibidez, audioak eta bideoak sortuko dituzte, bai hizkuntzaren alderdi ezberdinak bai kulturartekotasuna lantzeko.

Azken hiruhilekoan egun guztirako txangoa egingo dugu gure ikasleak frantses hitzuneekin eta frantses kulturarekin zuzeneko harremanean jartzeko xedez.

Horrez gain, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren barne dagoen A2 mailako azterketa egin nahi duten ikasleen prestakuntzarekin hasiko gara (Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketa edo DELF izenekoak)

BIDEO ETA ZINEMA TAILERRA

Tailer honetan, ikasleek ikus-entzunezko proiektuak (**animazioak, albistegiak, film laburra...**) sortuko dituzte. Lehenik, artisau prozedurak eta IKTak integratuz, ikasleek animaziozko film laburrak sortuko dituzte STOP-MOTION teknikarekin. Ondoren, fikziozko film labur bat sortuko dute, **gidoia idazten, planoak grabatzen eta materiala editatzen** ikasiz.

Sormena, teknologia eta talde-lana uztartzen dituen tailer praktikoa izango da.

ADIERAZPIDE ARTISTIKOA

Sormena ez da hezkuntza plastikoan ematen den balore bat soilik, edozein eremutan behar-beharrezkoa da, batez ere gaur egun.

Irakasgai honetan, hainbat proiektuen bitartez, Arte hizkuntzen oinarrizko teknikak eta kodeak ezagutu eta erabiltzen ikasiko ditugu, teknologia berriek ere sormen lanetarako ematen dituzten aukerak aprobetxatuz. Ikaslearen sormena bultzatzeko, produktu artistikoak landuko ditugu, eta gure gaur egungo kulturen gero eta hedatuagoa dagoen ikus-entzunezko ekoizpena kritikoki aztertuko dugu.

Ikasgai honek gero jaraipena du 4. mailan Adierazpen Artistikoa II ikasgaietan, eta batxilergoan Pintura I eta Pintura II ikasgaietan.

ELEKTRONIKA - ROBOTIKA (ELEANITZA)

Ikasgaia nagusiki praktikoa da. Automatizazioaren hastapenak landuko dira, tailerrean proiektu ezberdinak sortuz: zirkuitu elektroniko ezberdinak, lehenengo robot sinpleak eta arduino plakarekin programatutako gailuak.

Nori zuzendua:

- Tailerrean erremintekin eta eskuekin lan egin nahi duenarentzat.
- Taldean lan egitea gustoko duenarentzat.
- Sormena eta irudimena teknologia berriekin (arduino plakak, gailu elektronikoak, 3D inprimagailuak...) landu nahi dituenarentzat.

TALDE ELEANITZA behar adina ikaslek hala eskatuko balu, ikasgaia neurri batean ingelesez lantzeko taldea sortuko litzateke (erabiliko diren programak, txostenak eta abar ingelesez).

GAUR EGUN

Munduko, Espainiako, eta Euskal Herriko gaur egungo garrantzi handiko gertakarien zergatiak eta ondorioak ezagutzeko jakin-mina piztea da, ikasgaiaren helburu nagusia. Azterketa hori egiteko hainbat iturrietako informazioa erabiliko da, egunkariak, egunkari- digitalak, bideoak, ...

Ikasleak bakarka zein taldeka arituko dira. Informazioa landu ondoren, aurkeztuko dute: idatziz, ahoz, horma-irudien bidez, eta IKTak erabiliz (bideoak sortuz, PPT, prezi,..), eta debateak sortuz jarrera kritikoa sustatuko dute.

Bereziko kontutan izango da iritzi desberdinen errespetua ("enpatia"), lankidetzak, eta aniztasun trataera.

HEZIKETA DIGITALA ETA IKT III

Ikasgai honekin aurrerapauso bat eman nahi dugu eta teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea bultzatuko dugu institutuko ikasleekin. Eskolan eta gizartean erabilera txarren ondorioak ikusten hasiak gara eta honi aurre egiteko asmoz, 2022-2023 ikasturtean martxan jarri dugun Heziketa Digitala HernaniBHI proiektuaren gehigarri bat bezala planteatzen dugu jakintzagaia.

Ikasgaiaren helburu nagusiak, Teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea; Pentsaera Konputazionalaren eremuak zeintzuk diren jakitea eta kontzienteki erabiltzea; eta digitalizazio alorrean, gaur egungo munduan aritzeko beharrezkoak diren sare aplikazioak eta ordenagailuaren ezaugarriak ikasiko ditugu. Etorkizunean izango dugun mundu akademikorako eta lan mundurako presta zaitez!

KULTURA ZIENTIFIKOA

Arlo honetan zientziaren inguruko gaien lanketa egingo dugu baina ikuspuntu kritiko batetik, hau da, gizartean eztabaida sortzen duten egoera garrantzitsuak jorratuz: astronomia (unibertsoaren esplorazioa), osasuna (osasun aurrerapenak), ingurumen inpaktuak (ingurumen aurrerapen teknologikoak), zientzialarien aurrerapenak eta ekarpenak.

Horretarako lan praktikoa izango dugu ardatz: erronkak edo proiektu ezberdinak eta laborategiko praktikak. Material ezberdinak erabiliko dira lanketa ezberdin horiek egiteko: filmak eta eztabaidak, programa digital ezberdinak, ikerketa artikulak eta laborategi tresneria.

KULTURA KLASIKOA

Gizarte guztien aurrerapenaren oinarria zein den jakiteko, gizarte horien historia ezagutu behar da. Europako historian funtsezko garrantzia izan dute Greziako eta Erromako zibilizazioek, eta beraz, ezinbestekoa da haiek aztertzea eta ezagutzea. Kultura Klasikoa irakasgaia ikastearen xedeak hauek dira: ikasleei beren ingurunekeo gizarteari, kulturari eta hizkuntzari buruzko ikuspegi zehatza eta kritikoa ematea; eta klasikoengandik jasotako kultura- eta arte-ondare guztia zaintzeko eta iraunarazteko interesa sustatzea. Horretarako zera ikasiko dugu: Grezia eta Erromako historia, janariak, ohiturak, hezkuntza, jantziak eta batez ere MITOLOGIA. Izan ere, ikasgai hau mitologian oinarrituta dago.

LABORATEGI TAILERRA

Ikasgai honetan ikasgelatik laborategira salto egingo dugu eta esperimentazioaren bidez eraikiko dugu zientzia. Ikasleak laborategiko langile eta ikerlari izango dira. Zientziaren sekretuetatik abiatuz erdietsiko ditugu ikasgai honen helburuak: inguruko zientzia ulertzea eta laborategiko benetako lana nolakoa den ezagutzea.

Beraz, ingurumenarekin, teknologiarekin, osasunarekin edo naturarekin lotutako fenomenoak ikuspegi zientifikotik ulertzen ikasiko dugu. Zergatik ditugu koloretako suak? Zein sekretu gordetzen da suzirien atzean? Edota kimikak azaldu al dezake zergatik ari diren itsasoko koralak desagertzen? Gure inguruko erreken kutsadura baloratu al dezakegu? Galdera hauei pentsamendu kritikoaren bidez erantzuneko trebatuko gara laborategiko material, arau eta prozeduretan.

Ikasgai hau bereziki baliagarria izango da etorkizunean ibilbide zientifiko bat egin nahi dutenentzat, baina baita jakin-mina duen edonorentzat ere, bereziki talde lana eta sormena atsegin izanez gero.

MATEMATIKA INDARTZEA

Tailer honen helburua Matematikako kontzeptuak indartzea da, beraz irakasgai hau aurreko kurtsoetan zailtasunak izan dituzuenoi zuzenduta dago. Lehenengo zikloan ikasitakoa birpasatuko da oinarria sendotzeko asmoz, eta aldi berean 3. mailako edukiak landuko dira irakasgai horri aurre egiteko.

Lan dinamika gelan lan egitekoa izango da, azterketarik gabe. Portaera egokia eta gelan lan eginez gero lasai eramateko irakasgaia, eta 3. mailako Matematikako derrigorrezko irakasgaia gainditzeko laguntza eskainiko dizuna.

MUSIKALA. MUSIKA ETA BESTELAKO ADIERAZPIDE ARTISTIKOAK

Musikak betidanik harreman handia eduki du bestelako hainbat adierazpide artistiko eta kulturekin: dantza, antzerkigintza, hitza, irudia, teknologia, arte plastikoa... Tailer honetan arte adierazpen guztiak arte lan bakar batean bilduko ditugu MUSIKAL bat sortzeko.

OSASUN FISIKOA ETA EMOZIONALA III

Jarduera fisiko osasuntsu eta aktiboa sustatzea da gure helburua, bizi kalitatea eta osasuna hobetzeko. Horretarako, jarduera fisiko, jolas, eta kirolak egingo ditugu gaitasun desberdinak landuz eta aisia era aktiboan egiteko aukerak zabalduz emozioei garrantzia emanez.

Helburua da harremanetan trebatzea, parte-hartzea sustatzea, elkarlanaren balioaz jabetzea, sentimendu eta emozioak kanporatzea. Hori guztia gorputzaren mugimenduak baliatuz eta buru-ideiak aktibatuz.

PENTSAMENDU KRITIKO ETA AUTONOMOAREN HASTAPENAK

Ikasgai honetan pentsamendu kritikoa eta autonomia landu nahi da. Etengabe aldatzen ari den gure mundu honetan beharrezkoa ikusten dugu elkarriketarako, gauzak zalantzan jartzeko eta gogoetarako jarrera bultzatzea, norberak munduan duen lekua aurki dezan. Horretarako argudiozko elkarriketan trebatuko gara, gure garaiko erronka sozialei erreparatuz alde batetik, eta heziketa emozionala zainduz bestetik.

Gure arrazoibideak eta emozioen kudeaketa gai hauen bueltan landuko ditugu bereziki: adiskidetasuna, maitasuna, sexualitatea, aisialdia, globalizazioa, arazo eko-soziala, genero- desberdintasuna, garapen teknologikoa, zoriontasuna etab.

Teoria eta praktika uztartuz, azalpen sinpleak, ikus-entzunezkoak, gogoeta bultzatzeko elkarriketak nahiz bizipenezko dinamika parte-hartzaileagoak txandakatuko dira.

PRENTSA TAILERRA

Prentsa tailerrean albisteen munduan murgilduko gara: zer gertatzen den gure inguruan, nola kontatzen den eta nork erabakitzen duen zer den albistea. Ikasgai honetan kazetari lanetan arituko zara, informazioa bilatzen, egiaztatzen eta modu argi eta erakargarrian idazten ikasiz.

Talde-lanean albisteak, erreportajeak, elkarrizketak eta iritzi-artikuluak sortuko ditugu, bai idatziz bai formatu digitaletan. Gainera, egungo komunikabideak aztertuko ditugu, sare sozialen eragina ulertzeko eta informazio faltsua (fake news) identifikatzen ikasteko.

Prentsa tailerra ikasgai praktikoa eta sortzailea da, zure iritzia adierazteko, pentsamendu kritikoa lantzeko eta komunikatzeko gaitasuna hobetzeko aukera emango dizuna. Zure ahotsa entzunarazteko prest al zaude?